

BILDOTS GIBELA ETA HAZIKONTXOA TIPULAREKIN

written by Errezetak



Gibela alde batetik eta bestetik hazikontxoa jan egin dut, jatetxe batean elkartuta eskaini zidaten arte...

Osagaiak:

- 100gr bildots-gibela
- 300gr Bildots-hazikontxoa
- 1 Tipula
- 4 Baratxuri ale
- 2 Kaiena
- Gatza
- Olio

Prestaketa:

1.Hazikontxoak ur hotzean eduki ordu batez.Denbora pasata gordina kendu, gorde.



2. **Tipula** zuritu eta julianan zatitu. Zartagina batean olio gehitu, bero dagoenean tipula eta **kaienak** gaineratu eta gatzez ondu, su motelean multzoa potxatu, gorde.



3. **Baratxuriak** zuritu eta xafletan zatitu, zartagina bat olioztatu eta suan jarri. Olio beroa dagoenean, baratxuri xaflak gehitu. "dantzan" hasten direnean **gibela** gehitu, (lehenik 2x2 zm tako zatian egin) multzoa frijitu gibela kolorez aldatu arte, tipula dugun zartaginera gehitu.



4. Gibela egin dugun zartagina berberean hazikontxoak egingo ditugu, beraz zartagina hau sutan jarri eta olio gehitu. Bero dagoenean, hazikontxoak 2x2cm tako zatitan gehitu, urreztatu arte frijitu. Frijiturik ditugunean tipula eta gibela dugun zartaginera gehitu.



5. Azken zartagina hau sutan jarri minutu baten multzo guztia berotzeko. Platerean zerbitzatu.